



**EGIA, JUSTIZIA ETA ORDAINA DIKTADURA FRANKISTAREN
BIKTIMENTZAT: ESANAHIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN
Arartekoaren azterlana**

2012ko urtarrila



*They bide as quite forgot;
They are as men who have existed not;
Theirs is a loss past loss of fitful breath;
It is the second death.*

The To-Be-Forgotten, by Thomas Hardy (1840-1928)

*Haien garaia ahantzia da osoki;
badirudi inoiz ez zirela izan gizaki;
Hats etenaren galtzea da haiena;
Heriotza dute, bigarrena.¹*

Ahantziak, Thomas Hardy (1840-1928)

¹ Itzulpen librea.



EGIA, JUSTIZIA ETA ORDAINA DIKTADURA FRANKISTAREN BIKTIMENTZAT: ESANAHIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Nazioarteko zuzenbidea, esparru juridikoaren parte gisa.
3. Egia, justizia eta ordainerako eskubidea: esanahia.
 - 3.1. Egiarako eskubidea
 - 3.2. Justiziarako eskubidea
 - 3.3. Ordainerako eskubidea
4. Egia, justizia eta ordainerako eskubidea: Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoak
 - 4.1. Kalte-ordain ekonomikoak
 - 4.2. Adierazpen politikoak eta aitopen-ekitaldi publikoak.
 - 4.3. Sinbologia frankista kentzea
 - 4.4. Desagertutako pertsonen hobien mapa.
 - 4.5. Ikerketak eta argitalpenak egiteko diru-laguntzak
5. Ondorioak
6. Azken oharrak

Eranskina. Eskerrak



1. Sarrera

1998ko urritik abendura bitartean, Auzitegi Nazionalak Augusto Pinochet espetxeratzeko autoa, atxilotzeko nazioarteko agindua eta prozesatzeko autoa eman zituen, genozidio-, terrorismo- eta tortura-delituak egotzita. Hainbat hilabeteen Ingalaterran atxikirik eduki ostean, azkenean ez zuten Espainiara estraditatu, haren osasun-egoeraren ondorioz. Horrek biktimen artean frustrazioa eragin bazuen ere, nazioarteko justiziaren historian mugarri izan zen Augusto Pinochet giza eskubideen aurka krimen larriak egiteagatik aulkian esertzeko saio hura.

Pinochet kasuak aukera-leiho bat ireki zuen giza eskubideen aurkako urratze larriak zigorrik gabe ezin direla geratu pentsatzeko; izan ere, bada halako krimenak ikertzeko betebeharrak, edozein lekutan egin direla ere, eta edonork egin dituela ere, estatuburuak barne direla. 1998ko uztailan, Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutua onartu zuten. Estatutu hori 2002an sartu zen indarrean, eta gaur egun 120 herrialde inguruk dute berretsia. Halaber, 1998tik, hainbat prozedura judicial ireki dira hainbat herrialdetan, jurisdikzio unibertsalaren printzipioa aplikatuz.

Nazioartean izan zuen eraginaz gain, *Pinochet kasuak* ondore berezia izan zuen Espainian ere. Gutxienez paradoxikoa bazen Espainiako justizia Txile, Argentina, Txina, Maroko, Israel eta halako herrialdeetan ustez nazioarteko krimenak egin zituzten haiek auzipetzen saiatzea, eta, bien bitartean, inor auzitegiara ez eramana izatea diktadura frankistaren garaian egindako krimenengatik. Kontraesan horren egiaztapen publikoaren ondorioz, presentzia handiagoa lortu zuen, hala Espainian nola Euskal Herrian, munduko gainerako lekuetan exijitzekoak ziren estandar berberak aplika zitezela eskatzen zuen mugimendu batek. Estandar horiek, gaur egun Nazioarteko Zuzenbidean aintzatetsiak, hiru giza eskubidetan banatzen dira: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta ordainerako eskubidea.

Ararteko erakundea Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria da, Konstituzioaren lehen idazpuruan bildutako eskubideak babesteko sortua. Erakundea arautzen duen legean ezarrita dagoenez, Arartekoa ez da geratu, ez geratu behar ere, mugimendu horretatik kanpo. Frankismoaren biktimen elkarte eta erakunde memorialista batzuk – horien lana beharrezkoa da, eta onartu eta aintzat hartzea nahi dugu – herriaren defentsa-erakunde honetara etorri dira, egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubide horiek behar bezala bete daitezela eskatzera. Defentsa-erakunde honek, bere eginkizunak betetzean, arlo horri buruzko politika publikoak zer egoeratan dauden jakin behar zuela iritzi dio.

Hala ere, gai horrek, osorik aztertua izateko, gainditu egiten ditu euskal herri-administrazioen jardura-ahalmenak, eta, bestalde, estu lotuta dago nazioarteko zuzenbidearekin, Estatuko legeekin eta Botere Judizialaren esku-hartzearekin. Horregatik, Arartekoari bidezkoa iruditu zaio azterlan juridiko bat egitea. Azterlan



horrek, erakundeak berezko duen ikuspegitik begiratuta, zorroztasunean eta alderdikierarik ezan oinarrituta, elementu baliagarriak eman behar ditu hain beharrezkoa den eztabaida sustatzeko. Eztabaida horren argitan, botere publikoek berriz aztertu behar dute nola aitortu eta babestu behar diren frankismoaren biktimek egiarako, justiziarako eta ordainerako dituzten eskubideak.

Azterlan hau bi helbururekin sortu da: lehenik eta behin, biktimek egia, justizia eta ordainerako duten eskubidea aitortzea, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen argitan; eta, bigarrenik, eskubide horiek politika publikoetarako zer ondorio dakartzaten azaltzea eta jardunbide onak identifikatzea.

Gizartean eta Legebiltzarrean hainbat urtez horren inguruko eztabaida izan ostean, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatetsi eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko [52/2007 Legea](#) onartu zuten Gorte Nagusiek (arrunki 'Memoria Historikoaren Legea' deitzen dena)². Lege hori asko kritikatu zuten gizarte-erakundeek. Arartekoaren egitekoa ez da legegilearen borondatea epaitzea, eta are gutxiago estatuko legegileak adierazitako borondatea epaitzea. Arartekoaren eginkizuna ez da erabaki judizialen inguruan balio-judizioak egitea ere. Hala ere, azterlan honek nazioarteko zuzenbideak aintzatetsitako printzipioak ditu oinarri — horren barruan sartuta dago ordenamendu juridiko aplikagarria—, eta botere publikoek kontuan izan behar dute, 52/2007 Legean ezarritakoaz harago, giza eskubideen arloko nazioarteko arauak gidatu behar dituztela haien politika publikoak.

Arartekoak apalki eta biktimekiko erabateko errespetuz heldu dio problematika horri. Gure analisiak objektibotasuna eta inpartzialtasuna ditu abiapuntu, baina ez neutraltasuna: inor ezin da neutral geratu giza eskubideak urratzen direnean. Ez dugu ezkutatu nahi berandu ari garela aitorten hau egiten. Zerbitzu zintzo bat ematea beste nahirik ez dugu, beti begirada giza eskubideen babesean jarrita.

2. Nazioarteko Zuzenbidea, esparru juridikoaren parte gisa.

Bai barne zuzenbidearen ikuspegitik eta bai Estatuak bere egindako nazioarteko betebeharrak oinarritzat hartuta, indarrean dagoen esparru juridikoaren parte da nazioarteko zuzenbidea. Agerian geratu da hori 1978ko Konstituzioan. Hain zuzen, 96.1 artikulua haxe ezartzen du:

“Baliozkotasunez eginiko nazioarteko itunak Espainian modu ofizialean argitaratu eta gero, barne-antolamenduaren parte izango dira. Haien

² BOE, 310. zk., 2007ko abenduaren 27a.



xedapenak indargabetu, aldatu edo eteteko, nahitaezkoa da itunetan eurretan ezarritako moduan egitea edo nazioarteko zuzenbideko arau orokorrak betetzea”.

Zehazki, oinarrizko eskubideak babesteari dagokionez, botere publikoek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hartu behar dute gidari. Konstituzioko 10.2 artikulua honela dio:

“Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere”.

Konstituzio Auzitegiak berariaz adierazi du giza eskubideen defentsa eta sustapen unibertsalaren esparru zabalaren barruan sartzen dela oinarrizko eskubideak babesteko estatu-sistema:

*“Konstituziogilearen erabaki horrek aitortzen du bat gatzela tresna horiek babesten dituzten balio eta interesen esparruarekin, bai eta nazio giza Estatuaren antolaketaren funtsezko oinarritzat giza eskubideen defentsa eta babesa hartzen dituen nazioarteko ordena juridiko bati atxikitzeko gure borondatea ere”.*³

Nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, [1969ko Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenak], zeinari 1972ko maiatzean atxiki baitzitzaion Espainia⁴, *pacta sunt servanda* printzipioa jasotzen du 26. artikuluan; horren arabera, *“indarrean den tratatu orok behartu egiten ditu alderdiak, eta haiek fede onez bete behar dituzte”.* 27. artikulua, aurrekoaren korolariorak, hauxe dio: *“Alderdiek ezingo dituzte beren barne zuzenbideko xedapenak arrazoitzat hartu tratatu bat ez betetzeko justifikazio gisa”.* Ohiturazko araua da hori, Nazioarteko Justizia Auzitegiak halakotzat joa. Hain zuzen, nazioarteko zuzenbide publikoaren printzipio orokortzat hartzen du estatuen arteko harremanetan ezin zaiela barne zuzenbidea gailendu nazioarteko tratatuetako xedapenei⁵.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak hauxe adierazi du 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak, Espainiak 1997an berretsirikoak⁶, ezarritako betebeharrak juridikoa interpretatzean:

“2. artikuluan ezarritakoaren arabera, barne zuzenbidearen eta itunaren artean bateraezintasunik bada, barne zuzenbidea edo praktika aldatu beharko da, itunaren funtsezko bermeek ezartzen dituzten arauak bete

³ [Konstituzio Auzitegiaren 91/2000 Epaia](#), martxoaren 30ekoa, 7. Z.J.

⁴ BOE, 142. zk., 1980ko ekainaren 13a.

⁵ Nazioarteko Justizia Auzitegia, 1988ko apirilaren 26ko kontsulta-iritzia, *Arbitraje-betebeharraren aplikagarritasuna, Nazio Batuen Erakundearen egoitzari buruzko 1947ko ekainaren 26ko Erabakiko 21. artikulua arabera* 57. para.

⁶ BOE, 103. zk., 1977ko apirilaren 30a.



daitezten. (...) 2. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako betekizuna, hau da, ituneko eskubideak betetzeko neurriak hartu beharra, ez dago ezein baldintzaren pean, eta berehalako ondoreak ditu".⁷

Ondorioz, agerian geratu da botere publikoek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea aplikatzeko betebeharrak juridikoa dutela (hala barne zuzenbidearen nola nazioarteko zuzenbidearen argitan) beren politika publikoak zehaztean. Halaber, administrazio onaren printzipioak exijitzen du administrazio publikoek ezin dutela hartu Estatuaren nazioarteko betebeharren aurka doan erabakirik; izan ere, horrek, azken batean, giza eskubideen nazioarteko organoen errieta eragingo luke. Eskakizun hori aplikagarri zaie epaile eta magistratuei ere; ideia hori gaur egun errotuago dago Latinoamerikako kontinentean, "konbentzionaltasunaren kontrola" deiturikoarekin (1969ko Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena gogora ekarriz). Alde horretatik, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak hauxe ezarri zuen *Almonacid Arellano eta beste batzuk Txileren aurka* kasu sonatuan (2006):

"(...) Estatu batek Amerikako Hitzarmena bezalako nazioarteko tratatu bat berresten duenean, haren epaileak ere, Estatuaren aparatuen parte diren aldetik, haren menpe egongo dira; beraz, Hitzarmenaren xede eta helburuaren aurkakoak diren eta hasieratik ondorez juridikorik ez duten legeak aplikatzearen ondorioz haren xedapenen eragina gutxitu ez dadin zaindu behar dute. Beste hitz batzuetan esanda, botere judizialak "konbentzionaltasunaren kontrol" moduko bat egin behar du kasu konkretuetan aplikatzen diren barne arau juridikoen eta Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmenaren artean. Zeregin horretan, botere judizialak ez du soilik tratatua hartu behar kontuan, baizik eta baita Gorte Interamerikarrak, Amerikako Hitzarmenaren azken interpreteak, hartaz egin duen interpretazioa ere".⁸

Giza eskubideen boterea neurtzeko ez da kontuan hartzen haren arauak zenbateraino internazionalizatu diren, baizik eta horiek zenbateraino barneratu eta aplikatu dituzten botere publikoek tokian-tokian eta estatuan. Ondorioz, hala barneko eta nazioarteko esparru juridikoetan, nola administrazio onaren printzipioa eta giza eskubideekiko konpromisoa oinarritzat hartuta, administrazio publikoek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea izan behar dute gidari, beren eskumenen esparruan.

⁷ Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, [31. Ohar Orokorra: Estatu kideei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera](#), 2004. 13-14. para.

⁸ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Almonacid Arellano eta beste batzuk Txileren aurka](#), 2006ko irailaren 26ko Epaia. 124. para. Ikus [Radilla Pacheco Mexikoren aurka](#) kasua ere, 2009ko azaroaren 23ko Epaia. 339, eta hor aipatzen den jurisprudentzia.



3. Egia, justizia eta ordainerako eskubidea: esanahia

Botere publikoek errespetatu, babestu eta gauzatu egin behar dute giza eskubideak urratu zaizkien biktimek halako urratzeen aurka helegite eraginkorrak jartzeko duten eskubidea. Hala aitortzen da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 8. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 2.3 artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 13. artikuluan, nazioarteko beste hainbat trataturen artean.

Biktimek helegite eraginkorra jartzeko duten eskubideak oinarrizko hiru elementu barne hartzen ditu: justizia berdintasunez eta eraginkortasunez eskuratzea; pairatutako kaltearen ordaina egokiro, eraginkortasunez eta azkar jasotzea; eta urratzeen eta ordainerako (egiarako) mekanismoei buruzko informazioa eskuratzea. Hala dago jasota gaur-gaurkoz arloko erreferente arau-emaile nagusi den honetan: Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16ko 60/147 Ebazpenaren bidez hartutako *Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko [Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroen](#)* multzoa. Ebazpen horretan, Batzar Nagusiak honako hau onartu zuen:

“(D)okumentu honetan agertzen diren printzipio eta gidalerroek ez dakarte nazioarteko edo nazioko betebeharririk; aitzitik, giza eskubideen nazioarteko arauekin eta nazioarteko zuzenbide gizatiarrarekin bat etorritik bete beharreko betebeharririk betetzeko zer mekanismo, modu, prozedura eta metodo dauden adierazten dute; hain zuzen, horiek elkarren osagarri dira, nahiz eta desberdinak izan edukiz”.

Beraz, printzipio horiek ez dakarte betebeharririk estatuentzat, eta ez diete eskubide berririk ematen herritarrei. Horien ekarpen nagusia da jadanik giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean aintzatetsirik dauden eskubide batzuk sistematizatzen dituztela. Nazio Batuetako estatu kideek aho batez onartu zuten 60/147 Ebazpena, bozketara jo beharrik izan gabe. Ondorioz, baieztatu daiteke printzipioetan jasotako egia, justizia eta ordainerako eskubideak *opinio iuris communis* bat direla (nazioarteko erkidegoaren iritzirik), eta, beraz, nahitaez bete beharrekoak eta izaera orokorrekoak direla.

Egia, justizia eta ordainerako printzipioak konstante bat dira Ruandarako eta Jugoslavia zaharrerako Zigor-arloko Auzitegien jurisprudentzian⁹. Halaber, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, zeina eskuarki mesfidatia baita bere erabakietan

⁹ Ikus Nazio Batuetako Giza Eskubideen Behatokiaren analisi hauek ere: *Genocide, War Crimes and Crimes Against Humanity: A Topical Digest of the Case Law of the International Criminal Tribunal for the Former Yugoslavia*, 2006; eta *Genocide, War Crimes and Crimes Against Humanity: A Digest of the Case Law of the International Criminal Tribunal for Rwanda*, 2010.



giza eskubideen printzipioak txertatzeko, bere egin zuen printzipioen ikuspegi osoa (nahiz eta horiek berariaz aipatu ez) gatazka armatuetan zibilak babesteari buruzko [1894ko Ebazpen](#)ean (2009). Ebazpen horrek dio, beste hainbat konturen artean, beharrezkoa dela nazioarteko krimenen erantzuleak auzipetzea, beharrezkoa dela egia bilatzea, biktimei ordaina emateko programak sortzea eta egin beharreko erreforma instituzionalak egitea.

Ondoren, labur eta zehatz azalduko dugu egia, justizia eta ordainerako eskubideen esanahia, Printzipioak oinarritzat hartuta, bai eta giza eskubideen eremuko organo independente eta judzialen ebazpenak oinarritzat hartuta ere.

3.1. Egiarako eskubidea

Biktinek egiarako duten eskubideak memoriaren betebeharra dakar botere publikoentzat. Botere publikoek erraztu egin behar dute egia bilatzeko eta zabaltzeko modua, memoria kolektiboan txertatzeko. Memoria kolektibo horretan egia sartzea ez dago denboraren iraganaren mende, baizik eta politika publikoetan egia txertatzearen mende; horretarako, gizartearen parte-hartzea aktibatu behar da, "gertaeren memoriatik memoria kolektiboaren parte izango den egia moral batera pasatzeko" helburuarekin¹⁰.

Biktimen egiarako eskubideak, azken buruan, ikertzera behartzen du Estatua. Jadanik 1988an, *Velásquez Rodríguez Hondurasen aurka* kasu gogoangarrian, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak onartu zuen egiarako eskubidea estuki loturik dagoela justizia eskuratzeko eskubideari, eta iritzi zion ikertzeko betebeharra ordaina emateko modu bat dela, egiarako eskubidearen urratzea erremediatu beharra dagoenean¹¹. Beste epai entzutetsu batean, *Bámaca Velásquez Guatemalaren aurka* kasuan (2000), Gorte Interamerikarrak hauxe ebatzi zuen:

"Egiarako eskubidea Estatuko organo eskudunek ikerketaren eta epailtzaren bidez urratze-gertaerak eta dagozkien erantzukizunak argi ditzaten lortzeko biktimek eta haien familiakoek duten eskubidearen barnean sartuta dago".¹²

Guatemalari buruzko beste kasu batean, indarkeriak eta genozidioak tristeki astindu baitzuten herrialde hura urte askoan, Gorteak hau erabaki zuen:

¹⁰ Carlos Martín Beristain, "Verdad, justicia y reparación: democracia y derechos humanos en América Latina", in Carlos Martín Beristain (ed.), *Contribución de las políticas de verdad, justicia y reparación a la democracia en América Latina*, Giza Eskubideen Institutu Interamerikarra (IIDH), 2011. Artikulua Arartekoaren artxiboan dago.

¹¹ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Velásquez Rodríguez Hondurasen aurka](#) kasua, 1988ko uztailaren 29ko Epaia. 181. para.

¹² Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Bámaca Velásquez Guatemalaren aurka](#) kasua, 2000ko azaroaren 25eko Epaia. 201. para.



*“(G)iza eskubideren bat urratu bada, estatuko agintaritzek ezin diete heldu Estatu-sekretuari, informazioaren konfidentziasunari eta halako mekanismoei, ez eta interes publikoko edo segurtasun nazionalako arrazoiei ere, egin beharreko ikerketaz edo prozesuaz arduratzen ari diren agintaritzak judizial edo administratiboek eskatutako informazioa ez emateko”.*¹³

Atlantikoaren alde honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegia ere (GEEA) aktibo izan da egitarako eskubidearen aitortzearen. Zehazki, Auzitegiak baieztatu du “egia historikoaren bilaketa adierazpen-askatasunaren parte” dela¹⁴, eta Europako herrialdeei eskatu die “eztabaida dezatela beren historia modu ireki eta inpartzial batean”¹⁵. Halaber, GEEAk estatuei gogorarazi die lana erraztu behar dietela historiagile eta elkarte memorialistei; izan ere, ikerketa historikoak egiteko jatorrizko dokumentu-iturrietarako sarbidea izatea ere bada adierazpen-askatasunaren edukiaren parte¹⁶.

Azken hamarkadetan, “hirugarren demokratizazio-olatu” deritzona aribidean izan den bitartean (1974tik)¹⁷, egiaren batzordeak sortu dira iragan ilunak suntsituriko herrialdeetan. Egiaren batzordeak honela definitzen dira: “gertaerak egiaztatzeko eraturiko aldi baterako organo ofizialak, izaera judizialik gabeak, hainbat urtean egin diren giza eskubideen edo eskubide humanitarioaren abusuak ikertzeaz arduratzen direnak”¹⁸.

2006ko martxoan, Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrak [1736 Gomendioa \(2006\)](#) onartu zuen. Horren bidez, gaitzetsi egin zituen “1939tik 1975era bitartean Francoren erregimenak Espainian egindako giza eskubideen urratze larri eta ugariak”, eta Espainiako Gobernuari proposatu zion jar zezala abian “erregimen frankistaren pean urratutako giza eskubideei buruzko ikerketa-batzorde nazional bat”. Halaber, 2008ko urrian, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak, eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Ituna bete dadin zaintzeaz arduratzen baita, besteak beste hau gomendatu zion Espainiari: “Aditu independenteen

¹³ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Myrna Mack Chang Guatemalaren aurka](#) kasua, 2003ko azaroaren 25eko Epaia. 180. para. Ikus [Gomes Lund eta beste batzuk Brasilen aurka](#) kasua ere, 2010eko azaroaren 24ko Epaia. 202. para.

¹⁴ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA), *Chauvy eta beste batzuk Frantziaren aurka* kasua, 2004ko irailaren 29ko Epaia, 69. para.

¹⁵ GEEA, *Monnet Suitzaren aurka* kasua, 2006ko irailaren 21eko Epaia. 64. para.

¹⁶ GEEA, *Kenedi Hungariaren aurka* kasua, 2009ko maiatzaren 26ko Epaia. 43. para.

¹⁷ Samuel P. Huntington, *Democracy's Third Wave*, *Journal of Democracy*, 2. liburukia, 2. zk., 1991, 12-34. or.

¹⁸ Diane Orentlicher Zigorgabetasunaren aurkako Borrokarako Printzipio-multzoa eguneratzeko ardura duen aditu independentearen txostenaren eranskina, *Zigorgabetasunaren aurka Borroka eginda Giza Eskubideak babesteko eta sustatzeko Printzipio-multzoa eguneratua*, NBEren dok.: E/CN.4/2005/102/Add.1, 2005eko otsailaren 8a, definizioak, 6. or.

Ikus honako hau ere: Amnesty International, *Egia, justizia eta ordaina: Egia efektiborako batzorde bat sortzea*, AI: POL 30/009/2007 dok., 2007ko ekaina.



batzorde bat sortzea, Espainiako Gerra Zibilean eta diktaduran urratutako giza eskubideei buruzko egia historikoa berrezartzeko”¹⁹.

Horri dagokionez, garrantzitsua da hemen jasotzea Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak azaldutako iritzia; izan ere, zoritxarrez, ohitua dago giza eskubideen urratzeak zigorrik gabe geratu ohi diren egoerak aztertzea:

*“(E)giaren batzorde bat ezartzea, haren agintaldiaren xede, prozedura, egitura eta helburuaren arabera, lagungarri gerta daiteke memoria historikoa eraikitze eta zaintzeko, gertaerak argitzeko eta gizarte baten aldi historiko jakin batzuetako erantzukizun instituzional, sozial eta politikoak zehazteko. Mekanismo horren bidez lortzen diren egia historikoak ezin dira ulertu Estatuak banako edo estatuko erantzukizunak dagozkion jurisdikzio-bideen bitartez judizialki xedatuko direla ziurtatzeko duen betebeharraren ordezkotzat, ezta Auzitegi honek izan dezakeen nazioarteko erantzukizuna xedatuta ere. Elkarren artean osagarri diren egiaren xedapenak dira; izan ere, bakoitzak bere zentzua eta bere irismena du, bai eta potentzialtasun eta muga bereziak ere, eta sortu zirenean zegoen testuinguruaren eta aztertzen dituzten kasu eta inguruabar konkretuen menpe daude”.*²⁰

Egiaren batzordeak ezin dira ulertu baliabide judizialen alternatiba gisa, baizik eta tresna osagarri gisa. Hala onartu du Nazio Batzuetako Giza Eskubideen Batzordeak ere; hain zuzen, 2009an egiarako eskubideari buruzko [12/12 Ebazpena](#) onartu zuen. Ebazpen horretan, Batzordeak adoretu egin zituen giza eskubideen urratze larriak jasan zituzten herrialdeak egiaren batzordeak eratzeko aukera azter zezaten, "sistema judiziala osatzeko".

Osagarritasun hori ez da betekizun formal hutsa. Ikuspegi praktiko hutsetik, baieztatu da beharrezkoa dela batzorde independenteak baliabide judizialekin konbinatzea. Areago, bada azterlan enpiriko bat frogatzen duena egiaren batzordeek giza eskubideen egoera orokorra hobetzen lagundu besterik ez dutela egiten horiekin batera auzipetze judizialak eta halako tresnak ezartzen direnean²¹. Amnesty Internationalen azterlan batek, 1974tik 2010era bitartean ezarritako egiaren 40 batzordetan egindako zigor-arloko prozedurei eta amnistiei buruzkoak, ondorio interesgarriak ematen ditu²²: Egiaren batzordeen praktikak arbuia egiten

¹⁹ Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, *Azken oharra: Espainia*, 2008, CCPR/C/ESP/CO/5. 9. para.

Zenbait adituk desberdintasunak ikusten dituzte “egiaren batzordearen” eta “aditu independenteen batzordearen” artean. Egia eskubidea betetzeko tresna den aldetik, desberdintasuna ñabardura batzuetan datzala jo dugu azterlan honetan.

²⁰ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Zambrano Vélez eta beste batzuk Ekuadorren aurka](#) kasua, 2007ko uztailearen 4ko Epaia. 128. para.

²¹ Hala, Tricia D. Olsen, Leigh A. Payne eta Andrew G. Reiter, *The Justice Balance: When Transitional Justice Improves Human Rights and Democracy*, *Human Rights Quarterly*, 32. liburukia, 4. zk., 2010, 980-1007. or.

²² Amnesty International, *Comisionar la Justicia: Las comisiones de la verdad y la justicia penal*, NBE: POL 30/004/2010 dok., 2010eko apirila.



du amnistia ematea genozidioa, gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak eta halako nazioarteko krimenak egin badira; soil-soilik beste era bateko krimenak egin badira uzten du amnistia ematen; eskuarki, egiaren batzordeak prozedurak irekitzearen alde daude nazioarteko krimenak egin badira.

3.2. Justiziarako eskubidea

Justiziarako eskubidea zigorgabetasunetik babesteko ezkutua da. Zigorgabetasuna sortzen da Estatuak giza eskubideen urratzeen erantzuleak ikertzeko, jazartzeko, atzitzeko, auzipetzeko eta, hala badagokio, kondenatzeko duen betebeharra betetzen ez duenean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordearen jurisprudentziaren azterlan konbinatu batek adierazi du justiziarako eskubidea urratzen dela kasu hauetan guztietan²³:

- Amnistiaren legeak aplikatzea giza eskubideen aurka abusu larriak egin direnean.
- Estatuko agenteak nahita saiatzeko prozesu judizialak eragozten, eta ikerketan egin beharrekoak ez egitea edo irregulartasunak egitea.
- Bidegabeki edo arrazoirik gabe atzeratzea, Estatuaren ekintzaren edo ez-egitearen ondorioz.
- Ikerketak edo epaileek inpartzialtasunik ez izatea. Beste inguruabar batzuen artean, zibilak (eskuarki biktimak) nahasirik dauden kasuetan jurisdikzio militarra aplikatzen denean gertatzen da hori²⁴.
- Ikerketa aski ez izatea edo hutsuneak izatea eta horren ondorioz eragozpenak edo zailtasunak izatea kausa argitzeko edo erantzuleak identifikatzeko.
- Itxurazko edo engainuzko auzipetzeak egitea.

Giza eskubideak modu larri edo sistematikoan urratu badira, biktimak amnistiatik, hau da, ahanzturaren inposizio juridikotik defendatzeko duen tresna bihurtzen da justiziarako eskubidea. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak eboluzionatu egin du, nazioarteko krimenak edo giza eskubideen urratze larriak egin diren kasuetan amnistia ematea onartezintzat jotzeraino.

²³ Raquel Aldana-Pindell, An Emerging Universality of Justiciable Victims' Rights in the Criminal Process to Curtail Impunity for State-Sponsored Crimes, *Human Rights Quarterly*, 26. liburukia, 3. zk., 2004, 605-686 or.

²⁴ Esate Baterako, Giza Eskubideen Batzordea, [Bautista Kolonbiaren aurka](#) kasua, 563/1993 Jakinarazpena, 1995eko azaroaren 13ko Irizpena; GEEA, [Öcalan Turkiaren aurka kasua](#), 2003ko martxoaren 12ko Epaia; Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Radilla Pacheco Mexikoren aurka](#) kasua, 2009ko azaroaren 23ko Epaia.



Giza Eskubideen Batzordeak hauxe dio, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 7. artikulua, tortura eta bestelako tratu txarrak debekatzen dituen, interpretatzean:

*“Amnistiak eskuarki bateraezinak dira estatuek halako egintzak ikertzeko, beren jurisdikzioaren barruan halako egintzarik ez dela egingo bermatzeko eta etorkizunean halako egintzarik egin ez dadin zaintzeko duten betebeharrarekin. Estatuek banakoei ezin diete kendu ordain eragingarri bat izateko eskubidea, ezta kalte-ordain eta errehabilitazio ahalik eta osatuena izateko eskubidea ere”.*²⁵

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak argiro azaldu du bere jarrera amnistia orokorren inguruan egin dituen adierazpenetan.

Hala, *Goiko Auzoak Peruren aurka* kasuan (2001), Gorteak hau baieztatu zuen:

*“(O)nartzina dela amnistia xedatzea, preskripzioak xedatzea eta erantzukizunetik salbu daudenak ezartzea, baldin eta horien xedea torturen, exekuzio sumario, legez haragoko edo arbitrarioen, desagerpen behartuen eta halako giza eskubideen urratze larrien erantzuleak ikertu eta zeha daitezen eragozte bada; izan ere, horiek denak debekaturik daude, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak aintzatesten dituen eskubide ezeztazinen aurka doazenez gero”.*²⁶

Almonacid Arellano eta beste batzuk Txileren aurka (2006) kasuaren gaineko epaian, Gorte Interamerikarrak luze eta zabal azaldu zuen amnistia orokorrei zer irizten zien, gizateriaren aurkako krimenei zegokienez; hala, bere egin zituen nazioarteko beste organo batzuen irizpideak, eta gaur egungo joera hermeneutikoa laburbildu zuen²⁷. Bestalde, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2009an aitortu zuen amnistiaren legeak, printzipio orokor gisa, eskuarki bateraezinak direla estatuek tortura-egintzak ikertzeko duten betebeharrarekin²⁸.

Biktinek justiziarako duten eskubidea estuki loturik dago estatuek estraditatzeko edo epaitzeko duten betebeharrarekin (*aut dedere aut iudicare*). Betebehar hori zabalki aitortua dago Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean (esate baterako, tortura eta beste tratu edo zigor krudel, gizagabe edo ankerren aurkako Hitzarmeneko 7. artikuluan). *Aut dedere aut iudicare* printzipioa oinarritzat hartuz, Estatuak abusuen ustezko erantzuleari zigor-arloko jurisdikzioa aplikatu behar dio,

²⁵ Giza Eskubideen Batzordea, [20. Ohar Orokorra, 7. artikulua – Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, gizagabe edo ankerrak debekatzea](#), NBE:HRI/GEN/1/Rev.7 dok., 1992, 15. paragrafoa. Batzordeak irizpide horri eutsi dio bere jurisprudentzian [Rodríguez Urugairen aurka](#) kasuaz geroztik, 322/1988 Jakinarazpena, 1994ko uztailaren 19ko Irizpena. 12.3-12.4. para.

²⁶ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Goiko Auzoak Peruren aurka](#) kasua, 2001eko martxoaren 14ko Epaia. 41. para.

²⁷ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Almonacid Arellano eta beste batzuk Txileren aurka](#) kasua, 2006ko irailaren 26ko Epaia. 106-114. para.

²⁸ GEEA, *Ould Dah-en kasua. Frantzia*, Onargarritasunari buruzko Erabakia, 2009ko martxoaren 17koa.



edo hori egin dezakeen eta horretarako prest dagoen estatu batera estraditatu behar du pertsona hori. *Goiburu eta beste batzuk Paraguairen aurka* (2006) kasuan, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak hau adierazi zuen:

“(I)kusirik gertaerak zer izaeratakoak eta zein larriak diren, areago kontuan hartuta giza eskubideak sistematikoki urratu diren testuinguru bat dela, zigorgabetasuna errotik ateratzeko beharra estatuen artean ondore horretarako lankidetzan aritzeko betebeharrak gisa aurkezten zaio nazioarteko erkidegoari.

(...) Zigorgabetasuna ez da errotik aterako, baldin eta ez badira ezartzen erantzukizun orokorrak —Estatuarenak— eta bereziak —haren agenteen edo partikularren zigor-erantzukizunak—, osagarriak baitira elkarren artean. Justizia eskuratzea nazioarteko zuzenbidearen aginduzko arau bat da, eta, hala den aldetik, urratze horiek zigorrik gabe ez uzteko hartu beharreko neurriak hartzeko erga omnes betebeharrak sortzen dizkie estatuei; horretarako, barne zuzenbidea aplikatzeko beren jurisdikzioa eta erantzuleak epaitzeko eta, hala badagokio, zehatzeko nazioarteko zuzenbidea balia dezakete, edo, bestela, elkarlanean ari litezke hori egingo duten edo egiten saiatuko diren beste estatu batzuekin. (...) Hori horrela, estradizioa tresna garrantzitsua da helburu horiek lortzeko (...). Estatuak ezin diete zuzeneko edo zeharkako babesik eman giza eskubideen aurkako krimenak egiteagatik auzipeturik daudenei, nazioarteko betebeharren aurka doazen lege-neurriak bidegabeki aplikatuz”.²⁹

Espanian, Auzitegi Gorenak gogorarazi du estatuak nazioarteko zuzenbideko delituak ezarri behar dituztela beren barne legedietan; hala, *aut dedere aut iudicare* printzipioa aplika dadin erraztuko da³⁰. Estraditatzeko edo epaitzeko betebeharra jurisdikzio unibertsalaren printzipioarekin osatzen da. Hain zuzen, honetan datza printzipio hori: edozein estatutako auzitegiek prozedurak hasteko ahalmena izatea, nahiz eta delituak haien lurraldetik kanpo eginak izan eta estatu horiekin zerikusirik ez izan, ez akusatua edo biktimen nazionalitateagatik eta ez haien interes nazionalei egindako kalteengatik. Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 23.4 artikuluan aintzatetsia dago jurisdikzio unibertsala.

Amnesty Internationalek berriki egindako ikerlan baten arabera³¹, Nazio Batuetako 193 estatu kideetako 164k (gutxi gorabehera % 85ek) barneratu dute gutxienez nazioarteko krimen horietako bat beren barne legedian: gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak, genozidioa eta tortura. Nolanahi ere, komeni da zehaztea zigormoten definizioak ez datozela beti bat giza eskubideen nazioarteko estandarrekin.

²⁹ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Goiburu eta Paraguairen aurka](#) kasua, 2006ko irailaren 22ko Epaia. 131 eta 132. para.

³⁰ Auzitegi Gorenaren 554/2007 Epaia, Zigor-arloko Sala, 1. Sekzioa, 2007ko ekainaren 27a. 3. Z.J.

³¹ Amnesty International, *Universal jurisdiction: a preliminary survey of legislation around the world*, AI: IOR 53/004/2011 dok., 2011ko urria.



Horrez gain, 145 estatuk (gutxi gorabehera % 75ek) aurreikusi dute aipaturiko nazioarteko krimenetako batean gutxienez jurisdikzio unibertsala aplikatzeko aukera. Beraz, ikusten da nazioarteko erkidegoan badela halako joera bat nazioarteko krimenak delitu kualifikatutzat eta auzitegi nazionalak zigortzeko modukotzat jotzeko.

Estraditatzeko eta epaitzeko betebeharrak eta jurisdikzio unibertsala batera interpretatuta, ondorioztatzen da Espainiako Estatuak lagundu egin behar duela Gerra Zibilean eta frankismo garaian egindako krimenen inguruan gaur egun Argentinan aribidean den auzian³². Hain zuzen ere, jurisdikzio unibertsala oinarritzat hartuta ireki zen auzi hori, Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 3ko autoaren ostean. Izan ere, horren bidez, Auzitegiak prebikazio-delitua egotzi zion Baltasar Garzon magistratuari, krimen horiek ikertzen saiatzeagatik. Bitxiki, ez oso aspaldiko kasu batean, non Argentinak 1974tik 1976ra bitartean giza eskubideen aurka egindako abusu larrien ustezko erantzule bat estraditatzeko eskatu baitzuen, Auzitegi Nazionalak ondorioztatu zuen estradizioa onartzen ez bazen Espainiako agintaritzek prozedura hasteko eskumena zuten agintaritzak judizialei aurkeztu beharko zela kasua³³.

Diktadura frankistaren garaian egindako abusu zabalduek eta ikaragarrietako bat desagertu behartua izan zen. Pertsona guztiak 2006ko desagertu behartuak babesteko Nazioarteko Hitzarmeneko 5. artikularekin bat etorriz —Espainiak 2009ko uztailaren berretsia—³⁴, “desagertu behartuaren praktika orokortu edo sistematikoa gizateriaren aurkako krimen bat da, nazioarteko zuzenbide aplikagarrian zehaztuta dagoenez, eta nazioarteko zuzenbide aplikagarriak ezarritako ondorioak dakartza”. Ondorio horietako bat gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasunaren aginduzko araua da (*ius cogens*); hori, desagertu behartuen kasuan, indarturik ageri da, delitua iraunkor edo jarraitua denez gero³⁵.

Gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasuna GEEAk berretsi du, sobietar erregimenaren garaian Estonian egindako krimenei buruzko erabaki batean³⁶. Ildo berean, 2008an Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak Espainiako Gobernuari gomendatu zion har zitzala “beharrezko lege-neurriak auzitegi

³² BBC Mundo, “[Argentina investiga los crímenes del franquismo](#)”, 2011ko abenduaren 28a.

³³ Auzitegi Nazionalaren 8/2008 Autoa, Zigor-arloko Sala, 2. Sekzioa, Salaren 12/2007 Erroilua, 1/2007 Estradizioa, 2008ko apirilaren 28a, 4. Z.J.

³⁴ BOE, 42. zk., 2011ko otsailaren 18a.

³⁵ Ikus Javier Chinchón Alvarezen eta Lydia Vicente Markezen analisi zehatza, “La investigación de los crímenes cometidos en la Guerra Civil y el franquismo como delito de prevaricación”. Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 3ko Autoaren analisi kritikoa, nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik egina, *Nazioarteko Azterlanen Aldizkari Elektronikoa*, 19. liburukia, 2010.

³⁶ GEEA, *Estoniako Kolk eta Kisliyy-en kasua*, Onargarritasunari buruzko 2006ko urtarrilaren 17ko Erabakia.



nazionalak gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasuna aintzatetsiko dela bermatzeko³⁷.

Ikertzeko betebeharrari dagokionez, Estrasburgoko Auzitegiak xedatu du agintaritzek erailketa baten inguruabarrak argitzeko ikerketa eraginkorra egiteko duten betebeharra

“hein berean dela aplikagarria pertsona bat haren bizia arriskuan egon daitekeela pentsatzeko moduko inguruabarretan desagertu bada.

*Horri dagokionez, onartu behar da desagertu den pertsona horren berri izan gabe zenbat eta denbora gehiago pasatu, probabilitate handiagoa izango dela hilda egoteko”.*³⁸

Gainera, agintaritzek “hori ezin dute utzi dena delako ikerketa-prozedurak bultzaturik senitartekoek salaketa ofizial bat jartzeko edo erantzukizuna beren gain hartzeko izan dezaketen ekimenaren esku³⁹.

Hortik ondorioztatzen da frankismo garaian egindako desagerpen behartuak ikertzeko saioa ez dela soilik prebarikazio-delitu bat, baizik eta berez dela betebeharrak bat epaile eta auzitegi eskudunentzat, hala barne zuzenbidea nola nazioarteko zuzenbidea oinarritzat hartuta. Alde horretatik, Amnesty Internationalen gomendioetako bat berreskuratuz, positiboa litzateke Gerra Zibilean eta frankismo garaian egindako giza eskubideen urratzeetan, batez ere desagerpen behartuetan eta epaiketaz kanpoko exekuzioetan espezializaturiko fiskaltza bat sortzeko aukera balioestea, baliabide egokiak emanda eta hilobitik ateratzeko protokolo bat ezarrita, desagerpen behartuaren eta epaiketaz kanpoko exekuzioaren biktimen gorpuzkiak bilatzeko, lokalizatzeko eta identifikatzeko, Nazio Batuen Arauekin eta Minnesotako Protokoloa deiturikoarekin bat etorritik, Fiskaltza espezializatuaren lanean laguntzeko⁴⁰.

³⁷ Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, *Azken oharra: Espainia*, 2008, CCPR/C/ESP/CO/5. 9. para.

³⁸ GEEA, *Seker Turkiaren aurka* kasua, 2006ko maiatzaren 21eko Epaia. 67 eta 69. para.

³⁹ GEEA, *Kelly eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka* kasua, 2001eko abuztuaren 4ko Epaia. 94. para.

⁴⁰ Amnesty International, *Víctimas de la Guerra Civil y el franquismo: no hay derecho*, 2006ko azaroa, 36-37. or. Ikus honako hau ere: Amaya Olivas Díaz, La intervención del Juez de instrucción en las diligencias de investigación seguidas por desapariciones forzadas en la dictadura franquista, *Demokraziaren aldeko Epaileak*, 63. liburukia, 2008ko azaroa, 86-102. or. 2011ko irailaren 23an, Ministroen Kontseiluak “Gerra zibilaren eta diktaduraren biktimak hobitik ateratzeko jarduketako protokoloa” onartu zuen (PRE/2568/2011 Agindua, irailaren 26koa, BOE, 232. zenbakia, irailaren 27a)



3.3. Ordainerako eskubidea

Ordainak eskubide bat urratu izanaren aintzatespenaren erreakzio automatikoa izan behar du. Ordaina eskuratzea ezin garrantzitsuagoa da, giza eskubideen aitorten formala edukirik gabeko formaltasun huts bihur ez dadin.

Urratzeei dagokien ordaina modu batera edo bestera emango da, sortutako kaltearen arabera. Egindako urratzeen ondoreak desagerrarazteko neurria da ordaina, eta, beraz, berorren izaera eta zenbatekoa egindako kalte material eta ez-materialaren arabera dira. Azken batean, ordainek aitortutako urratzeen heinekoak izan behar dute⁴¹.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko [Printzipio eta gidalerroen](#) multzoan, Nazio Batuetako estatu kideek, aho batez, honako hau onartu zuten:

“Ordain egoki, eraginkor eta azkarraren xedea justizia sustatzea da, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeak edo gizateriaren nazioarteko zuzenbidearen urratze larriak erremediatzeko.

*Ordainak proportzionala izan behar du urratzeen larritasunarekin eta pairatutako kaltearekin. Estatuak, beren barne zuzenbidearekin eta nazioarteko betebeharrak juridikoekin bat etorritik, ordaina emango diete biktimei, Estatuari egotz dakizkiokkeen eta giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeak edo gizateriaren nazioarteko zuzenbidearen urratze larriak diren ekintzengatik edo ez-egiteengatik. Erabakitzen bada pertsona fisiko edo juridiko batek edo beste entitate batek ordaina eman behar diola biktima bati, alderdi erantzuleak ordaina eman beharko dio biktimari, edo, bestela, kalte-ordaina eman beharko dio Estuari, baldin eta hark jadanik biktimari dagokion ordaina eman badio”.*⁴²

Printzipio eta Gidalerroek barne hartu dute Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak batez ere *Velásques Rodríguez Hondurasen aurka* (1988) kasuaz geroztik garatu duen ordainen ikuspegi emankor eta irudimentsua. Printzipio eta Gidalerroetan ordaina emateko bost modu orokor hauek identifikatu dira: lehengoratzea, kalte-ordaina ematea, errehabilitatzea, gogobetetzea eta berriz ez dela gertatuko bermatzea:

“19. Lehengoratzeak, ahal den guztietan, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzea edo nazioarteko zuzenbide gizatiarraren urratze larria egin aurreko egoerara itzuli behar du biktima. Lehengoratzeak,

⁴¹ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Hermanas Serrano Cruz ahizpak El Salvadorren aurka](#) kasua, 2005eko martxoaren 1eko Epaia. 136. para.

⁴² 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16koa. 15. para.



bidezkoa bada, berekin dakar askatasuna berrezartzea, giza eskubideak, nortasuna, familia-bizitza eta herritartasuna gozatzea, bizitokira itzultzea, lehengo lanean berriro hastea eta ondasunak itzultzea.

20. Kalte-ordaina modu egokian eta urratzearen larritasunarekiko eta kasuan kasuko inguruabarrekiko proportzioan eman behar da, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeen edo nazioarteko zuzenbide gizatiarraren urratze larrien ondorio diren galera ekonomikoki ebaluagarri guztiak kontuan hartuta, hala nola:

- a. Kalte fisiko edo mentala;*
- b. Aukeren galera, batez ere enpleguari, hezkuntzari eta gizarte-prestazioei dagokienez;*
- c. Kalte materialak eta diru-sarreraren galera, lortu gabeko irabazia barne dela;*
- d. Kalte moralak;*
- e. Laguntza juridikoaren edo adituen gastuak, medikamentuak eta zerbitzu medikoak eta zerbitzu psikologiko eta sozialak.*

21. Errehabilitazioak barne hartu behar du arreta mediko eta psikologikoa, bai eta zerbitzu juridiko eta sozialak ere.

22. Gogobetetzeak barne hartu behar du, zilegi eta bidezko denean, ondoko neurri hauek denak edo batzuk:

- a. Urratze gehiago egin ez dadin lortzeko neurri eraginkorrak;*
- b. Gertaerak egiaztatzea eta egia jendaurrean eta osoki ezagutaraztea, betiere horrek kalte gehiago ez badakar eta biktimaren, haren familiakoen, lekukoaren edo biktimari laguntzeko edo urratze gehiagorik ez gertatzeko esku hartu duten pertsonen segurtasuna eta interesak arriskuan jartzen ez baditu.*
- c. Desagertutako pertsonak bilatzea, bahitutako haurren eta eraildako pertsonen gorpuen nortasuna argitzea eta berreskuratzen, identifikatzen eta berriro hobian sartzen laguntzea, biktimaren berriazko edo ustezko nahiaren edo haren familiaren eta erkidegoaren praktika kulturalen arabera;*
- d. Biktimaren eta hari hertsiki loturiko pertsonen duintasuna, izena eta eskubideak berrezarriko dituen adierazpen ofizial bat egitea edo erabaki judizial bat hartzea.*
- e. Jendaurrean barkamena eskatzea, gertaerak aitortuta eta erantzukizunak onartuta;*



- f. Zehapen judizialak edo administratiboak aplikatzea urratzeen erantzuleei;*
- g. Biktimen oroitzapen-ospakizunak eta omenaldiak egitea;*
- h. Giza eskubideen nazioarteko arauen nazioarteko zuzenbide gizatiarraren urratzeen azalpen zehatza barneratzea irakaskuntzan nahiz material didaktikoan, maila guztietan.*

23. Berriro ez gertatzeko bermeek barne hartu behar dituzte, bidezkoa bada, ondoko neurri hauek guztiak edo batzuk —prebentziorako ere lagungarri izango dira—:

- a. Agintaritza zibilek indar armatu eta segurtasuneko gainean kontrol eraginkorra egitea;*
- b. Prozedura zibil eta militar guztiek prozesuko bermeei, ekitateari eta inpartzialtasunari buruzko nazioarteko arauak betetzen dituztela bermatzea;*
- c. Botere judizialaren independentzia indartzea;*
- d. Zuzenbidearen, osasunaren, osasun-laguntzaren eta informazioaren arloko eta horiei loturiko beste sektore batzuetako profesionalak babestea, bai eta giza eskubideen defendatzaileak babestea ere;*
- e. Gizarteko sektore guztiak giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide gizatiarraren arloan heztea, lehentasunez eta modu iraunkorren, eta arlo horretan gaitzea legea betearazteko ardura duten funtzionario guztiak, bai eta indar armatu eta segurtasunekoak ere.*
- f. Funtzionario publikoek, horien barnean merkataritza-enpresetako langileak ez ezik segurtasun-indarretako langileak, espetxeak, komunikabideak, zerbitzu mediko, psikologiko, sozialetako eta indar armatuetako langileak daudela, portaera-kodeak eta arau etikoak, batez ere nazioarteko arauak, bete ditzaten sustatzea;*
- g. Gizarte-gatazkak prebenitzeko, zaintzeko eta konpontzeko mekanismoak sustatzea;*
- h. Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeak eta zuzenbide gizatiarraren urratze larriak egin daitezten laguntzen edo uzten duten legeak berrikustea eta aldatzea”.*

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak ordainetan ere kategorizazio hori egiten du:

“(B)idezkoa denean, ordainak berekin ekar ditzake lehengoratzea, errehabilitazioa eta gogobetetze-neurriak, hala nola apologia publikoak, oroimenezko ospakizun publikoak, berriro ez gertatzeko bermeak eta legeen



*eta jardunbideen bidezko aldaketak, bai eta giza eskubideak urratu dituztenak justiziaren menpe jartzea ere”.*⁴³

Estatuaren erantzukizuna aitortzeko ekitaldi publikoak ordaina emateko modu baliotsu bat dira biktimentzat, eta ekonomikoki ez da kostu handikoa botere publikoentzat. Gogobetetze-neurri sinbolikoak dira, iragan autoritarioarekin argiro hautsi dela erakusteko eta sistema demokratikoa sendotzeko nahia erakusteko balio dutenak. Etsenplu gisa, 2011ko urriaren 20an, Guatemalako lehendakari Álvaro Colomek barkamena eskatu zien Jacobo Árbenz Guzmánen familiakoei. Jacobo Árbenz kargutik kendu zuten, 1954ko estatu-kolpearen bidez, Estatuak ez zuelako bete familiako kideen giza eskubideak babesteko zuen betebeharra⁴⁴. Adierazpen horrek ez dakarkio inola ere gaur egungo Gobernuari erantzukizun pertsonal edo instituzional bat hartu beharra; aitzitik, Estatuaren erantzukizunaren aitorten formala da, haren ordezkari legitimoak, hots, gobernuburuak adierazitakoa.

Ordainak forma asko har ditzake, eta nolabait kalte-ordaina ematera muga daiteke. Botere publikoek giza eskubideak urratzearen ondorioz sortutako kalte materialen eta sufrimendu moralaren ordain osoa eman behar dute. Ordainaren xedea lehengo egoerara bueltatzen eta urratzearen ondoreak ezabatzen saiatzea da. Alabaina, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak Ciudad Juarezko feminizidioetan Mexikoko Estatuak zuen erantzukizunari buruzko *Algodoi-landareen saila* (2009) kasuaren gaineko epaian egokiro adierazi zuen bezala, biktima erasotzen erraza den edo arriskuan dagoen talde bateko kide delako bada hala, ordaina ez da soilik izango *ex ante* egoerara itzultzea, baizik eta diskriminazio estrukturalaren egoera hartu behar du kontuan:

*“(O)rdainen xedeak egoera hori eraldatzea izan behar du; beraz, ez dute soilik lehengoratzeko-ondorea izango, baizik eta baita ondore zuzentzailea ere. Horri dagokionez, ez da onargarria indarkeriazko eta diskriminaziozko egoera estruktural berera itzultzea”.*⁴⁵

Ordaina emateko ezinbestekoa da aurrez eskubide bat urratu dela identifikatzea, eta hori onartzea funtsezko pausoa da kaltea garbitzeko.

Halaber, urratze horren ustezko erantzuleak bilatzea eta auzipetzea berez da ordaina emateko modu bat. Modu horretara, agerian geratu da mendekotasun estua dagoela egia, justizia eta ordainerako eskubideen artean.

Gogorarazi behar da erabateko ordaina ematea asmo zuzena eta beharrezkoa dela, baina baita iritsezina ere berez. Guatemalan bahitu, torturatu eta erail zituzten adingabeen kasu zorigaitzokoa (*Kaleko haurrak* kasua, 2001), Antonio Cançadok,

⁴³ Giza Eskubideen Batzordea, [31. Ohar Orokorra: Estatu Kideei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera](#), 2004, 16. para.

⁴⁴ BBC Mundo, “[Guatemala: una disculpa que tardó 57 años](#)”, 2011ko abenduaren 20a.

⁴⁵ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [González eta beste batzuk Mexikoren aurka \('Kotoi-landareen Saila'\)](#) kasua, 2009ko azaroaren 16ko Epaia. 450. para.



garai hartan Giza Eskubideen Gorte Interamerikarreko lehendakari zenak eta gaur egun Nazioarteko Justizia Auzitegiko epaile denak, bikainki azaldu zuen ordainen berezko muga:

*“Juridikoki, (...) ordainek —barestutako giza eskubideei kalte egin dien neurriaren edo egoeraren ondorioena—, benetan ordaina eman baino gehiago, bizirik dauden senitartekoen giza sufrimendua leuntzen dute, eta bizitzarako birgaitzea dute xede —eta, horregatik, guztiz dira beharrezkoak—. (...) Egindako kaltea, jadanik adierazi dudan bezala, ez da desagertzen: soilik aurre egin eta arindu egiten da. Emandako ordainek beharbada jasangarri bihurtzen dute bizirik dirauten senitartekoen bizitza; izan ere, kasu konkretu honetan, isiltasunak, ezaxolak eta ahanzturak ez dute lortu ankerkeriak gainditzea eta egindako kaltea ez zaio gailendu justiziaren bilaketa iraunkorrari (gogoak berezko duena). Beste hitz batzuetan esanda, emandako ordainek, kasu konkretu honetan, adierazten dute giza kontzientzia nagusitu zaiola suntsitzeko bulkadari. Alde horretatik, ordainek, nahiz eta ez izan bete-betekoak, ezin ukatuzko garrantzia dute gizakiari datxezkion eskubideak zaintzeko lanean”.*⁴⁶

Ordaina frustragarria da berez, ezinezkoa baita biktimari ordaina ematea, eskubideak urratu aurreko egoerara eramateraino. Arazo hori larriagotu egiten da, bereziki Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen kasuan; izan ere, hamarkadetan ia oharkabean pasatu dira haiek administrazio publikoentzat. Nolanahi ere, ordainek berez dituzten mugak ezin dira aitzakia gisa erabili agintaritzek beren betebeharrak juridikoa ez betetzeko. Aginduzkoa izan behar du botere publikoentzat, beren eskumenen esparruan, giza eskubideen aurkako abusu larrien biktimen kalteari eta premiei ahalik eta gehien egokitutako ordaina bilatzea eta ematea.

4. Egia, justizia eta ordainerako eskubidea: Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoak

Egia, justizia eta ordainerako eskubidearen edukia eta esanahia giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen argitan azaldu ostean, bidezkoa da laburki azaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek arlo horretan egindako zenbait jardunbide on.

Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei, hiru foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari (Giza Eskubideen Zuzendaritza) egindako kontsulta irekiaren bidez jakin

⁴⁶ Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, [Villagran Morales eta beste batzuk Guatemalaren aurka kasua \('Kaleko haurrak'\)](#), 2001eko maiatzaren 26ko Epaia; Antonio Augusto Cançado Trindade epailearen boto arrazoitua, 42-43. para.



du jardunbide horien berri. Horrez gainera, telefonoz eta posta elektronikoz bidez hitz egin du Batzar Nagusietako langileekin eta hainbat udaletako arduradunekin. Prozesu osoak lau hilabete inguru iraun du (2011ko urria – 2012ko urtarrila).

Kontsultaren xedea administrazio publikoen berezko erantzuna lortzea zen, herri, foru eta erkidego mailako botere publikoek 'diktadura frankistaren biktimezako egia, justizia eta ordaintzat' zer daukaten ikusteko asmoz.

Arartekoak jasotako informazioa ez da osatua; izan ere, ez zuen jaso administrazio publiko askoren erantzuna⁴⁷. Arartekoak badaki, komunikabideen bitartez, beste administrazio batzuek beste izaera bateko programak ere jarri dituztela martxan. Jasotako erantzunak oinarritzat hartuta, frankismoaren biktimei arretoa emateko politika publikoek zer ereduri jarraitzen dioten ikus liteke. Testu honetan jasotako erreferentziak ez dira zehatzak eta aipaturiko jarduerak eta ekimenak bereziki adierazgarriak izateagatik hautatutako etsenplu soiltzat hartu behar dira.

Normala den bezala, eskumen-banaketa eta botere-bereizketa kontuan hartuta, udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak egiaren eta ordainaren eremuei dagozkien soil-soilik. Aurreko atalean aipatu den bezala, justiziaren alderdia botere judizialari eta Fiskaltzari dagokie.

4.1. Kalte-ordain ekonomikoak

Estatuari dagokionez, Gerra Zibilean eta diktadura garaian jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aintzatetsi eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legeak hauxe jasotzen du 4.1 artikuluan: "Gerra Zibilean eta diktadura garaian arrazoi politiko, ideologiko edo erlijio-sinesmenaren zioz emandako epai, zigor eta gainerako zehapenen ondoreak pairatu zituztenei ordaina eta aitortza emateko adierazpen bat lortzeko eskubidea". Manu bereko laugarren paragrafoan, legegileak hau argitzen du: "Adierazpen hori ez da izango titulu bat Estatuaren edo beste edozein administrazio publikoren ondare erantzukizuna aitortzeko, eta ez du berekin ekarriko ondore, ordain edo kalte-ordain ekonomiko edo profesionalik ere"⁴⁸. 52/2007 Legeak 1968ko urtarrilaren 1etik 1977ko urriaren 6ra bitartean "askatasun eta eskubide demokratikoak defendatu eta aldarrikatzeagatik" hil zirentzako kalte-ordain

⁴⁷ Kontsultari erantzun dioten administrazioen zerrenda "Eskerrak" atalean dago.

⁴⁸ Prozedura arautzeko, Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenei ordaina eta aitortza pertsonala emateko adierazpenari buruzko azaroaren 3ko 1791/1008 Errege Dekretua hartu da kontuan (BOE, 277. zk., 2008ko azaroaren 17a).



ekonomikoak soilik ezartzen ditu (10. artikulua eta Laugarren Xedapen Gehigarria)⁴⁹.

Euskal Autonomia Erkidegoan, autogobernua berreskuratu zen hasierako urteetatik, diktadura frankistaren ondoreak pairatu zituztenentzat zuzeneko edo zeharkako konpentsazio ekonomikoak arautzen zituzten arauak ezarri ziren. Halako kalte-ordainak lege-testu hauetan identifika daitezke:

- 11/1983 Legea, ekainaren 22koa, Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzari Zerbitzu Egindako Lanarian Lanbide eta Gozamen-eskubideekikoa (EHAA, 98. zk., 1983ko uztailaren 4koa).
- 8/1985 Legea, urriaren 23koa, 11/1983 Legea osatzen duena (EHAA, 241. zk., 1985eko azaroaren 25koa).
- 1/1986 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 13koa, Euskal Herriko Autonomia-Administrazioan bere zerbitzuak egin zituen langilegoaren Lanbide eta Gozamen-Eskubideei buruzko eraberritutako idazkera onartzekoa (EHAA, 101. zk., 1986ko maiatzaren 24koa; eta akatsen zuzenketa 130. zenbakiko EHAAn, 1986ko uztailaren 2koan).
- 8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa (EHAA, 67. zk., 2002ko apirilaren 10koa).
- 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa (EHAA, 65. zk., 2002ko apirilaren 10koa).
- 280/2002 Dekretua, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa (EHAA, 229. zk., 2002ko azaroaren 19koa).
- 99/2003 Dekretua, maiatzaren 6koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko martxoaren 27ko 3/2002 Legea garatzen duena (EHAA, 89. zk., 2003ko maiatzaren 9koa).
- 22/2006 Dekretua, otsailaren 14koa, askatasun-gabetzea jasandako pertsonen, Langile Soldaduen Diziiplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituen, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau

⁴⁹ Prozedura hau garatzeko, 52/2007 Legean aitortutako kalte-ordainak emateko baldintzak eta prozedura arautzen dituen azaroaren 3ko 1803/2008 Errege Dekretua hartu da kontuan (BOE, 276. zk., 2008ko azaroaren 15a).



honetan aurreikusitako prozedura-aldaketak salbu (EHAA, 191. zk., 2006ko urriaren 5koa).

280/2002 Dekretuak espektatiba handiak sortu zituen biktimen eta haien familiakoen artean. Arartekoak hainbat kexa jaso zituen konpentsazioen izapidetzearen eta adjudikazio-epeen inguruan. Langile Soldaduen Diziiplina Batailoietan egon izana askatasun-gabetzetzat hartzen zuen 22/2006 Dekretua Konstituzio Auzitegiaren irizpidearen arabera izan zen:

“Langile soldaduen diziiplina-batailoietara sartzea zerbitzu militarra zigorren bat betetzen ari zirenentzat ezarritakoen antzeko baldintzetan egiteko modu bat zen; baldintza horiek oso latzak ziren eta zuzenean loturik zeuden aurrez zigorren bat bete izanarekin.

*(...) Langile soldaduen diziiplina-batailoietan sartzea zerbitzu militarra zigorra betetzen ari zirenen antzeko baldintzetan betetzeko modu bereziki atsekabegarria zen, [horri gaineratu behar zaio] aurrez espetxean egonak zirenek egiten zutela zerbitzua horrela, eta gaur egun konstituzionalki onartezina izango litzatekeela, Espainiako Konstituzioko 17. artikulua aurkakoa izateagatik”.*⁵⁰

Eusko Jaurlaritzaren [web gunean](#) eskuragarri dagoen informazioaren arabera, bi dekretu hauek oinarritzat hartuz (280/2002 eta 22/2006) 8922 eskabide jaso ziren guztira. Halako konpentsazioetarako eskabideak aurkezteko epea itxita dago. Arartekoak bildutako informazioaren arabera, bi dekretuak indarrean egon ziren aldirian, zenbait udalek (behintzat, Pasaiakoak eta Zeberioakoak) laguntza eman zuten konpentsazio ekonomiko horiek izapidetzeko prozesuan (inprimakiak betetzea).

4.2. Adierazpen politikoak eta aitoren-ekitaldi publikoak.

Gure informazio-eskaerari erantzun zieten udalen erdiek, gutxi gorabehera, diktadura frankista gaitzesteko eta frankismoaren biktimei babes instituzionala emateko mozio edo adierazpen politikoren bat egin dute. Hala egin dute Eusko Jaurlaritzak eta hiru Batzar Nagusiek ere azken urteetan.

Eusko Jaurlaritzak hainbat eratako adierazpenak egin ditu, hala nola: 2008ko azaroaren osoko bilkuran hartutako erabakia, frankismoaren krimenak ikertzeko fiskaltza espezializatu bat sortzeari buruzkoa, eta urte horretako ekainean emandako ebazpena, 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertaerei buruzko Batzorde Bereziak egindako irizpena onartzen duena.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek lau mozio onartu zituzten, 2006tik 2009ra bitartean, Gerra Zibila eta frankismoa gaitzesteko eta biktimei elkartasuna adierazteko.

⁵⁰ [Konstituzio Auzitegiaren 180/2005 Epaia](#), uztailearen 4koa, 7 eta 8. O.J.



2010eko maiatzean, Bizkaiko Batzar Nagusiek lurraldeko espazio publiko eta instituzional guztietatik sinbologia frankista ken zedila eskatu zuten. Arabako Batzar Nagusietan ere egin dituzte ekimenak eta mozioak, behintzat 1999tik, horietako asko 1976ko martxoaren 3ko gertaerekin loturikoak. 2006ko irailean, Batzar Nagusiek 30/2006 Mozioa onartu zuten, "Arabian memoria historikoa berreskuratzeari buruzkoa". Horren bidez, erabaki zuten Arabako Domina Teodoro Olarte Aizpuru 1936an Arabako Aldundiko Kudeaketa Batzordeko buru izandakoari ematea, hil ostean.

2000ko urrian, Zumarragako Udalak "Ohorezko alkatea" ohore-titulua kendu zion Francisco Francori. 2001ko otsailean, Getxok adierazpen instituzional bat onartu zuen "Gerra Zibilaren, lehenagoko gatazka zibilen eta frankismoaren biktimak" aitortu eta omentzeko, eta biktimen omenezko eskultura bat ipintzea erabaki zuen. Antzeko adierazpenak egin dituzte, esate baterako, beste udal hauek ere: Vitoria-Gasteizkoak (2006ko otsaila), Arrigorriagakoak (2006ko uztaila) eta Urduñakoak (2011ko uztaila). 2009ko azaroan, Vitoria-Gasteizko Udalak aho batez erabaki zuen diktadura frankistaren bereizgarriak kentzea.

2009ko irailean, Arabako Foru Aldundiak *Argiaren basoa* eskultura-lana inauguratu zuen, frankismo garaian lurralde horretan zapalketa pairatu zutenen omenez. Bestalde, erakundeek diktadura frankistaren biktimen aitormenez oraintsuen egindako keinu instituzionaletako bat Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko abenduaren 14an 'Malko horiei esker orain itsaso gara' izenburupean egindako ekitaldia izan zen. Ekitaldira, ordezkari politikoak ez ezik, diktaduraren ondoreak zuzenean pairatu zituzten pertsona eta senitarteko haietako dozenaka batzuk joan ziren.

4.3. Sinbologia frankista kentzea

52/2007 Legeak 15. artikuluan, 'Sinbolo eta monumentu publikoak' izenekoan, hau dio:

"1. Herri administrazioek, beren eskumenak baliatuz, bidezko neurriak hartuko dituzte altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren zapalketa pertsonalki edo kolektiboki goraiatzeko duten armarri, intsignia, plaka eta bestelako objektu eta oroimenezko aipamenak kentzeko. Neurri horien artean sartu ahalko da diru-laguntzak edo laguntza publikoak kentzea ere.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa ez da aplikatuko aipamenak huts-hutsean oroitzapen pribatukoak badira eta altxaturikoak goraiatzeko ez badituzte, ez eta tartean Legeak babestutako arrazoi artistiko, arkitektoniko edo artistiko-erlijiosoak badira ere.



3. Gobernua autonomia-erkidegoekin eta tokiko erakundeekin elkarlanean arituko da Gerra Zibileko eta diktadurako aztarnen katalogo bat egiteko, aurreko idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako.

4. Herri-administrazioek diru-laguntzak edo laguntzak kendu ahalko dizkiete artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarri bezala jarduten ez duten jabe pribatuei”.

2008ko urriaren 31n, Ministroen Kontseiluak, akordio bidez, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren mendeko erakunde publikoen ondasunetan sinbolo frankistak ken zitezen agindu zuen⁵¹. Akordio horretan, Gobernuak “Altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren zapalketa pertsonalki edo kolektiboki goraipatzen duten armari, insignia, plaka eta bestelako objektu eta oroimenezko aipamenak kentzeko” irizpide orokorra ezarri zuen. Aldi berean, 52/2007 Legeko 15.2 artikulua ildotik, Gobernuak salbuespenak ezarri zituen kultur intereseko ondasuntzat jotako ondasunetan dauden sinboloetarako, baldintza hauek betetzen badira:

- Esanahi historikoa: Esanahi historiko eta arkitektonikoa duten eta higiezina eraikitzeko jatorrizko proiektuan aurreikusita zeuden sinboloak soilik gordeko dira, betiere interes kulturalako ondasunaren adierazpenean bertan sartuta badaude.
- Balio artistiko edo artistiko-erlijiosoak: Balio artistiko edo artistiko-erlijioso handia duten sinboloak gordeko dira, betiere interes kulturalako ondasunaren zati badira eta hala aitortu bada dagokien adierazpenean.
- Irizpide teknikoak: Sinboloa funtsezko elementu izatea higiezinaren egituraren, kenduz gero higiezinaren egonkortasuna edo behar bezala kontserbatzeko beharrezkoa den beste edozein alderdirena arriskuan jartzearainokoa.

Adituen batzorde tekniko bat sortu zen, Kultura Ministerioaren pean, irizpide horiek praktikan jartzeko. 2011ko erdialderako, Batzorde horrek 700 ondasun baino gehiago zeuzkan aztertutako, eta horietatik % 10 salbuetsi zituen, zeukaten balio historiko, artistiko edo teknikoarengatik. Hala, esate baterako, 2010eko martxoaren 26an, Batzorde Teknikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasunaren Bilboko Ordezkaritzatik konstituzio aurreko armarrira ken zedila gomendatu zuen. Alabaina, 2010eko otsailaren 23an, Batzordeak gomendatu zuen Carlos Haya kapitain frankistaren lau argazki *in situ* kontserba zitezen, Bilboko aireportuko agintaritza-gelan, “argazkien edukian goraipatze-elementurik” aurkitu ez zuela eta⁵².

Hainbat udalek sinbologia frankistaren erroldak egin dituzte eta sinbolo horietako batzuk kendu dituzte. Lehenengo neurrietako bat herrietako kaleak aztertzea eta

⁵¹ CUL/3190/2008 Agindua (BOE, 269. zk., 2008ko azaroaren 7a).

⁵² Memoria Historikoaren Legearen Adituen Batzorde Teknikoaren erabakietan hartutako irizpide orokorreko buruzko txostena, 2011ko ekaina, 6 eta 10. or.



aldatzea izan zen. 1979ko uztailetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Udalak aldatu egin zuen bere kale-izendegia: zenbaitetan jatorrizko izena hartu zuen berriro, eta beste batzuetan izen berriak jarri zizkien kaleei eta plazei. Vitoria-Gasteizko Udalak argazkiak, koadroak eta beste elementu batzuk ere kendu zituen udal eraikinetatik. Zumarragak zortzi kale, etorbide eta plazaren izenak aldatu zituen 1980ko urtarrilean. 2009. urtean, Barakaldok 102 kaleren izenak berrikusi zituen eta 260 plaka kendu zituen espazio publikotik. Bilbon, demokraziako lehenengo udalbatzek ere halaxe egin zuen; gainera, hiriko kale berrietako batzuek Gerra Zibilaren drama gogorarazten dute, hala nola Leah Manning kaleak (1936an "gerrako haurrak" deiturikoen ebakuazioa antolatu zuen britaniar diputatua) eta George Steer kaleak (kazetaria eta Gernikako bonbardaketaren lekukoa). Bestalde, berriki, balio sinboliko bereziko zenbait eskultura ipini dira Bilbon, hala nola Nestor Basterretxearen 'Memoria bizia' eskultura eta Artxandako begiratokiko gudarien oroigarria. Beste udalerrri batzuetan ere ipini dituzte eskulturak eta plakak, hala nola Arrasaten, Donostian, Tolosan eta Zizurkilen.

Portugaletoko Udalak Arartekoari jakinarazi zion udalerrian geratzen den jatorri frankistako monumentu bakarra Pandoko udal hilerrian dagoen 'Erorien Monumentua' dela. Udalak monumentua bertan uztea erabaki zuen, iritzi baitzion "hilobi-monumentu historiko bat dela, konnotazio pertsonal eta humanitarioak dituen gero".

Udal batzuek jabetza pribatuko eraikinetan dauden jatorri frankistako elementuak zenbatu dituzte. Esate baterako, Zamudioko Udalak hamahiru plaka identifikatu zituen etxebizitza-atarietan. Jabetza pribatuko eraikinetan dauden sinboloak dagokienez, 52/2007 Legearen 15.4 artikuluekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ez diete diru-laguntzarik edo bestelako laguntzarik eman behar diktadura frankistaren oroitzapena egiten edo goraiatzeko duten sinboloak kentzen ez dituzten jabeak.

4.4. Desagertutako pertsonen hobien mapa

52/2007 Legeak, 11-14. artikuluen bidez, "prozedura pribatizatua"⁵³ ezartzen du desagertutako hobietatik ateratzeko. 52/2007 Legean aurreikusitako prozedurak familien eta elkarten eskuetan uzten du desagertutako pertsonen gorpuak berreskuratzeko zamarik handiena, eta hori kontraesanetan dago justiziarako eskubideak botere publikoei ezartzen dizkien betebeharrekin. Ministroen

⁵³ José Antonio Martín Pallín eta Rafael Escudero Alday, De malas leyes, peores reglamentos: el desarrollo de la Ley de la memoria histórica, *Demokraziaren aldeko Epaileak*, 66. liburukia, 2009ko azaroa, 9-25. or.



Kontseiluak berriki onartu du Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktimak hobitik ateratzeko jarduketa-protokoloa⁵⁴.

Familien eta elkarteen irmotasunari esker eta Aranzadi Zientzia Elkartearen eta halako ikerketa-zentroen lanari esker, Eusko Jaurlaritzak, berriki, [Euskadiko hobien mapa](#) egin du. 2011ko maiatzean, Gobernu zentralak [Estatu osoko hobien mapa](#) argitaratu zuen, hobien eta biktimen bilatzaile batekin. Estatuko mapa hori autonomia-erkidegoek emandako informazioa oinarritzat hartuz egin da; beraz, ez da inola ere zehatza.

Arartekoak jasotako informazioarekin bat etorritz, hainbat udalek (esate baterako, Pasaia-koak eta Zumarraga-koak) laguntza eman diete ikertzaileei eta familiei desagertutako senitartekoak non egon daitezkeen ikertzeko.

4.5. Ikerketa eta argitalpenetarako diru-laguntzak

Arabian memoria historikoa berreskuratzeari buruzko irailaren 25eko 30/2006 mozioa oinarritzat hartuta, 2010. urtean Arabako Foru Aldundiak finantzatutako eta Valentin de Foronda institutuak burututako azterlan bat aurkeztu zen. Bertan, Lurralde Historiko horretan diktadurak ekarriko errepresioa dokumentatu da. Valentin de Foronda Institutuak eta Eusko Jaurlaritzak antzeko hitzarmen bat sinatu zuten 2011. urtean, Euskal Herri osoan zer errepresio izan zen ikertzeko. 2006. urtetik, Eusko Jaurlaritzak urtero eman ditu diru-laguntzak "memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak" egiteko.

2011ko martxoan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Aranzadi elkarteak egindako *Gipuzkoa. Udal errepublikanoetatik frankistetara: 1936-1937* liburua aurkeztu zuten. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak gutxienez hiru ikerlan finantzatu ditu 2003tik Hernani, Donostia eta beste leku batzuetan Gerra Zibilak eta gerraosteko errepresioak izandako ondorioaren inguruan. 2006. urtean, Galdakaoko Udalak *Galdakao. Historiaren gomuta* liburua argitaratu zuen, Cirilo Davilak idatzia, Udalbatzak onartutako mozio bat betez. Pasaia-ko Udalak 2007. urtean Xabier Portugal Arteagak idatzirik *Pasaia 1931-1939. Zanpatuen oroimina* liburua argitaratu zuen. Bilboko Udalak ere zazpi argitalpen sustatu ditu gutxienez gai horren inguruan 2005. urtetik.

⁵⁴ PRE/2568/2011 Agindua, irailaren 26koa (BOE, 232. zk., irailaren 27a).



5. Ondorioak

- a. Barne esparru juridikoarekin eta Estatuak bere gain hartutako nazioarteko betebeharrekin bat etorritik, **Nazioarteko Zuzenbideak** gidatu behar ditu administrazio publikoen jarduketak giza eskubideen arloan.
- b. Diktadura frankistaren biktimek **egia, justizia eta ordainerako eskubidea** dute. Administrazio publikoek, beren eskumenekin bat etorritik, eskubide horiek aitortu, babestu eta bermatu behar dituzte, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak Jartzeko edo Bestelako Ordaina Jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura Larriei buruzko [Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroen](#) argitan.
- c. Botere publikoek kontuan hartu behar dute **egia berrezartzeaz** eta Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren garaian egindako giza eskubideen urradurak identifikatzeaz arduratuko den **aditu independenteen batzorde** bat sortzeko aukera, besteak beste Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak eta Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrak gomendatu duten bezala.
- d. Biktimen **justiziarako eskubideari** dagokionez, nahiz eta kontu horrek oro har Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eskumen-esparrua gainditzen duen, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik, **gomendagarria litzateke Estatuko botere publikoek honako hau egitea:**
 - Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legea ez aplikatzea giza eskubideen aurkako krimenak egin diren kasuetan.
 - Halako krimenak egiteaz akusatutako pertsonak estraditatzeko edo epaitzeko (*aut dedere aut iudicare*) eta bide ematea prozesu judizialak abiarazteko.
 - Nazioarteko zuzenbide aplikagarrian zehaztuta dagoen bezala desagerpen behartuaren praktika orokortu edo sistematikoa gizateriaren aurkako krimen bat dela eta nazioarteko zuzenbide aplikagarriak ezarritako ondorioak dakartzala aitortzea.
 - Desagerpen behartua giza eskubideen aurkako krimen jarraitu eta preskribaezin gisa tratatzea, eta, beraz, halako delituak ikertzeko ardura beren gain hartzea.
 - Gerra Zibilean eta frankismo garaian egindako giza eskubideen urratzeetan, batez ere desagerpen behartuetan eta epaiketaz kanpoko exekuzioetan espezializaturiko fiskaltza bat sortzeko aukera balioestea, baliabide egokiak emanda eta hilobitik ateratzeko



protokolo bat ezarrita, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik.

- e. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) biktimekiko konpromiso irmoa indartu eta beren gain hartu behar dute, **batez ere egiarako eta ordain material zein moral edo sinbolikorako eskubideei** dagokienez. Alde horretatik, dauden jardunbiderik onenak har daitezten gomendatzen dugu, besteak beste:
- **Adierazpen politikoak onartzea eta biktimak aitortzeko ekitaldi publikoak egitea.**
 - **Sinbologia frankista kentzea.**
 - **Kalte-ordain ekonomikoak.**
 - **Desagertutako pertsonen hobien mapa eguneratzea eta garatzea.**
 - **Diru-laguntzak edo bekak ematea ikerketak egiteko.**
- f. Garrantzitsua da **erakunde arteko lankidetzan** aurrera egitea, gastu publikoaren eragina maximizatzeko eta Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktimei arreta emateko eta eskubideak aitortzeko jardunbide onenak koordinatu eta ezagutaraziko direla ziurtatzeko.
- g. Botere publikoek aitortu egin behar dute **erakunde memorialistek** toki-eremuan duten eginkizuna. Haien esperientziaren eta ezagutzen ondorioz, elkarte horiek aliatu izan daitezke egia bilatzeko prozesuan, bai eta biktimei ordain osoa emateko planetan ere.

6. Azken oharrak

Auschwitz Monowice-n giltzapean sartutako gizonak oinazetzen zituzten amesgaiztoetako batean, haien beren familiekin afaltzen irudikatzen zuten beren burua, eta, kontzentrazio-esparruko beren sufrimendua haiekin partekatzera zihoazelarik, familiakoak altxatu eta urrundu egiten ziren, hitzik esan gabe. Hala kontatzen du Primo Levik *Si esto es un hombre* liburuan. Biktimak entzutea, justizia bermatzea eta ordaina ematea gutxieneko ezinbestekoa da amesgaizto horri amaiera emanez iratzartzeko.

Ehunka mila pertsona anonimok pairatu zituzten Gerra Zibilaren eta Franco buru zela hurrengo hamarkadetan gauzatutako diktadura latzaren errepresioak izandako ondore suntsitzaileak. Egia, justiziarako eta ordainerako eskubideak aitortzeko eta babesteko, ezinbestean jarri behar diegu arreta Miguel de Unamunok aipaturiko 'intrahistoriaren' protagonistei: egunkarrietan eta historia-liburuetan **oharkabean pasatzen direnen bizitzei**.



Louis Joinet garai hartan Nazio Batuetako aditu independente zenak zigorgabetasunari buruz esan zuen bezala, **orria pasatzeko, lehenik irakurri egin behar da**⁵⁵. Arartekoaren azterlan hori ezin da hartu historia berreraikitze saio gisa edo Francisco Franco hil ondoko urteetan egin zenaren edo egin ez zenaren gaineko kritika erraz gisa. **Kontua ez da garai hartako erabakiak deitoratzea edo laidoztatzea, baizik eta gaur giza eskubideetan oinarritutako konpromiso batzuk hartzea.**

Betebehar etiko eta juridikoa izateaz gain, diktadura frankistaren biktimentzat egia, justizia eta ordaina behar bezala aitortzea eta gauzatzea **adiskidetze sozialerako bidea dira**. Adiskidetze hori honela ulertu behar da, batez ere: **giza eskubideak eduki nagusizat dituzten balio eta printzipio partekatu batzuetan oinarritutako komunitate politiko baten jomuga gisa.**

Oro har, botere publikoak eta administrazio publiko guztiak berandu heltzen ari gara frankismoaren biktimen sufrimendua aitortzeko dugun betebeharra betetzera. **Inoiz ez gara behar bezain esker oneko izango** urteetan askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen alde borrokatu eta sakrifikatu ziren haiekin. **Memoria izatea askatasunaren iturria bera bizirik mantentzea da.**

⁵⁵ Louis Joinet, *Diskriminazioak Prebenitzeko eta Gutxiengoak Babesteko Azpibatzaordearen 1996/199 Ebazpena aplikatuz egindako [azken txostena](#): Giza eskubideak (zibilak eta politikoak) urratzen dituztenen zigorgabetasunaren auzia*: NBE: E/CN.4/Sub.2/1997/20/Rev.1, 1997ko urriaren 2a, 50. para.



Eranskina. Eskerrak

Azterlan hau egin aurretik, kontsulta ireki bat egin zitzaien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei (2011ko urrian); horretaz gain, laneko dokumentu bat ere egin zen, eta gizarte zibileko adituei eta erakundeei bidali zitzaien hori (azaroa eta abendua).

Arartekoak eskerrik beroenak eman nahi dizkie agiri hau eztabaidatzeko eta prestatzeko prozesuan lagundu duten pertsona, erakunde eta instituzioei.

Bereziki, Arartekoak bidalitako informazio-eskaerari erantzun dieten udalei:

- Adunako Udala
- Arratzua-Ubarrundiako Udala
- Arrigorriagako Udala
- Asteasuko Udala
- Barakaldoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Eibarko Udala
- Galdakaoko Udala
- Getariako Udala
- Getxoko Udala
- Lezamako Udala
- Urduñako Udala
- Pasaiako Udala
- Portugaleteko Udala
- Sopelako Udala
- Vitoria-Gasteizko Udala
- Zaldibarko Udala
- Zamudioko Udala
- Zeberioako Udala
- Zumarragako Udala

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, eskatutako informazioa bidaltzeagatik.

Halaber, esker ona adierazi nahi diegu pertsona eta erakunde hauei, eman diguten laguntza ezin baliotsuagoarengatik:

- Amnesty International



- Memoriaren aldeko Foroen Estatu Federazioa, Juan Carlos Erregea Unibertsitateko Jose Luis Muga Muñozen bitartez.
- Carlos Martín Beristain, giza eskubideen ikertzailea.
- Camelia Doru, *ICAR Foundation*, Errumania.
- Francisco Etxeberria, Aranzadi Elkarte eta Euskal Herriko Unibertsitateko Lege eta Auzitegiko Medikuntza Saila.
- Felipe Gómez, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea.
- Alison Hogg, Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutua, Oñati.
- Jon-Mirena Landa, Euskal Herriko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakaslea.
- Amaya Olivas, lehen auzialdi eta instrukzioko epailea.
- Ramon Saez, Auzitegi Nazionaleko magistratua
- Lydia Vicente, giza zuzenbideen arloko abokatua eta *Rights International Spain* taldeko kidea.
- Patrick Walsh, Ekialdeko Timorko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeko aholkularia.
- Mariano G. Yakimavicius, Zientzia Politikoetako irakaslea eta Santa Fe Probintziako (Argentina) Herriaren Defentsa Bulegoko harreman instituzionalen arduraduna.

Arartekoa da azterlan honen analisi, ondorio eta gomendioen egile eta arduradun bakarra.